

## INAUTERIAK

Ikastola sortu zenetik gure ezaugarrietako bat beti izan da euskal tradizioaren eta folklorearen transmisioari eskainitako interesa, denbora eta lanketa. Ezaguna izan da Zurriola Ikastolaren presentzia Groseko auzoan Olentzero, Kalderero, Inauteri eta beste hainbat festatan. Hasiara batean urteroko buruhaustea izaten zen inauterietan zertaz mozorrotu, 1989-90 ikasturtean irakasle talde batek euskal folklorean oinarrituz Inauteriko pertsonaia esanguratsuenak mailaz maila banatu eta behin betiko finkatzea proposatu zuen arte.

Izugarrizko arrakasta izan zuen auzoan, hainbat komunikabidetan gure ekintzaren berri eman zuten, eta beste ikastola eta eskoletatik ereduak eta argazkiak eskatu zizkiguten antzeko zerbait egiteko asmoz. Horrela, gaur egun eskola gehienetan arrunta eta normala da euskal inauteria ospatu eta dantzatzea. Honetan ere, Zurriola Ikastola aitzindari izan zen.

Inauteriak ospatzen ditugun egunean, ikastola barruan egiten ditugun ekintzez gain Gros auzoko kaleak alaitzen ditugu gure jantzi, dantza eta abestiekin. Ondoren, Hurrako atarian inauterietako doinuak dantzatu eta kale jira erraldoiaz ematen diogu festari amaiera. Horrek guztiak lan handia ematen du, baina ekintza ikusgarria antolatzen dugunik ez du inork ukatzen.

Inauterien festak beste izaera libreagoa ere baduela jakinik, ikasleek mozorro librea janzteko aukera ere badute. Hala ere, Zurriola ikastolako inauterien bereizgarri edo arrastoa Euskal Herriko hainbat lurraldetako pertsonailetan oinarritzen dela esan dezakegu.

### HH 2-3 (TXORIMALOA)

Txorimaloz janzten dira gure ttikienak. **Adabakiz** betetako koadro dun atorraz ala zakuzko soineko arekin. Lastozko kapelua, galtza urdinak, galtzerdiak eta abarkak dira beste osagarriak.



HH 4 (TXANTXOA)

Txanoa ikastolan egingo dugu



HH 5 (TXANTXOA)

Txanoa ikastolan egingo dugu



LH 1 (TXANTXOA)

Txanoa Ikastolan egingo dugu



Alkandora  
edo jertsea  
zuria


Artilezko  
galtzerdiak

Zakuzko  
soingainekoa


Adabakiak

Abarkak

Galtza  
ilunak



LH 2 (LUZAIDE)



Zinta gorri  
bana  
besoetan

Gerriko  
gorria


Oinetako zuriak, zinta gorritz  
apainduak

Ikastolan egingo dugu

Paparra sigi-saga  
urre-kolorekoz  
apaindua

Alkandora  
zuria

Galtza edo  
gona zuriak  
alboetan  
sigi-saga  
gorri eta  
berdea josia



Zintak.

Ikastolan ditugu

### LH 3 (SORGINAK ETA ARTZAINAK)

Neska zein mutilentzat



LH 4 (LORAZAINA)



(\*) LH4ko ikasleen jantzi hau neska zein-mutilentzako proposatzen dugu.

LH 5 (JOALDUNA)



LH 6 (KOTILUNGORRIA)



Maskarak ikastolan ditugu

Galtza eta oinetako zuriak

Txanoak ikastolan ditugu



Edozein koloretako mantala edo zapia



Zapi handi koloretsua

Jertse edo Alkandora zuria

Gona gorriak ikastolan ditugu

LH6ko ikasleen jantzia Uztaritzeko (Lapurdi) Kotilungorriena izango da. Gonak eta kopetakoak (maskarak) Ikastolak eskainiko ditu, txanoak Ikastolan egingo dituzte, eta zapia, jertse/alkandora, oinetako, galtzak eta mantala etxetik ekarri beharko dituzte.